



DEIALDIA, SOZIOLOGOAREN 2 PLAZA LEKUALDATZE-LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKO, IRUÑEKO UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ZERBITZURA ARITZEKO DEIALDIA BETE GABE UZTEA

Giza Baliabideetako zuzendariak honako ebazpen hau onetsi du 2026eko maiatzaren 14an:

Bat etorrita Iruñeko Udalaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura aritzeko soziologoaren 2 plaza lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko deialdiaren laugarren oinarriarekin, zeina Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako Alorreko zuzendariak 2026eko otsailaren 2an emandako ebazpenaren bidez onetsi eta 2026eko 38. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, otsailaren 20koan, argitaratu baitzen, eta behin amaituta eskabideak aurkezteko epea, inork ez du izena eman lekualdatze-lehiaketan. Horrenbestez, EBATZI DUT:

- 1.- Deialdia bete gabe deklaratzeari.
- 2.- Agintzea ebazpen hau argitara dadila Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Iruñeko Udalaren www.pamplona.es/eu webgunean.

Ebazpen honen aurka honako errekurtsio hauetako bat paratzen ahal da:

- a) Berraztertze errekurtsioa, egintza gauzatu duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- b) Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- c) ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-errekurtsioa, Iruñeko Auzialdiko Auzitegiko administrazioarekiko auzien atalari zuzendua, BI HILABETEKO epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Iruñean, 2026eko maiatzaren 14an.-Giza Baliabideetako Alorreko zuzendaria, Xabier Burgui Vergara.